



# Larizkoerrota

etxebizitza

Aldacrak: Larizgoikoa / Goikoa

Ahokoak: Góikue / Errótie



43° 11' 23"

2° 34' 14"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*Lariz* jauregiaren (**Ikus Lariz**) lurretan kokatzen den errota dugu honako hau, seguruenik jauregira lotuta egongo zena, eta ondorioz, ez da dokumentazioan agertzen. *Oka* errekatik urak aprobetxatuz egin du bere ibilbidea baserri-etxe honek. Orain erdi erorita egon arren, gutxienez XIX. mendetik dokumentatuta dago, beti ere *Lariz* etxe handiari lotuta. XX. mende hasieran, Udal-errolda batean *Molino de Lariz* (1910, BUA, RU) moduan jasotzen da. Berriztarren artean, *Góikue* edo *Errótie* ahoz formak erabiltzen dituzte.

Errota izan zen baserri hau, eta kontserbatzen du oraindik ere estoldaren arkua izandakoa. XVIII. mende amaieran egin zen, eta hurrengo mendearen eraberitu zuten. Orduko etxe askoren eredu jarraituz, sarrerako atea alde batean dauka, eta solairu horretako leiho gutxiak harlanduz egindakoak dira. Goikoak eta teilatupekoak, ostera, ugariagoak dira, eta egurrezko dintela daukate. Bi isurkiko teilatua dauka, eta eraikitzeke harlangaitza erabili zuten, kantaletan izan ezik, horiek harlandua baitaukate.

## toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian, lehenengo osagaia auzo izena izaten delako. Sarritan auzo izena izatez bertan egon zen lehenengo izena baino ez da. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitu zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortu zen eta etxe guztiek hasiera bera hartu zuten, auzoaren izena. Ahoz, gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan Lariz auzoko errota da. Errota izenez zerbait gehiago jakiteko ikus Bekoerrota (Okango) sarreran esaten dena.